

GABONAK 2014

TXANTXIKU IKASTOLAN



EGITARAJUA

ABENDUAREN 22a, ASTELEHENA

- * Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailetako ikasleek BEC-en dagoen **Gabonetako Haurren Parkea** bisitatuko dute.
- * 15:00etan **OLENTZERO** antzerkia HHko ikasleentzat (2 urtetik gorakoentzat).

ABENDUAREN 23a, MARTITZENA

- * **OLENTZERO eta MARI DOMINGI IKASTOLAN.** 09:00etatik aurrera, Olentzero eta Mari Domingi gelaz gela ibiliko dira Haur Hezkuntzako ikasleekin solasean. Mari Domingi ikasleen eskutitzak jasoko ditu Olentzerori emateko.
- * Lehen Hezkuntzako 5. mailako ikasleak **San Martineko Zaharren Egoitza** bisitatuko dute eta bertako kideekin gabonetako kantuak abestuko dituzte.
- * **OLENTZEROREKIN KALEJIRA.** 11:00ak aldera Lehen Hezkuntzako ikasleek San Martinen egingo diote harrera Olentzerori, eta ondoren, Oñatiko kaleetan barrena kalejira egingo dute.
- * **SANTO TOMAS AZOKA.** 11:30etik aurrera Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. mailako ikasleek Santo Tomas azoka antolatuko dute herriko azokan. Bertan, baratzean jasotako eta etxean egindako produktuak salgai izango dituzte. Bestalde, Santo Tomas eguneko ohiturari jarraituz, txistorra ogitartekoak ere izango dira.

OHARRA: HH 2 urtetik gorako ikasleak baserritar jantzita etor daitezela komeni da.

ABENDUAREN 24a, EGUAZTENA

KALEZ KALE GABON KANTAK ABESTEN

- ORDUA:** 12:00etan, Ikastolako jolaslekuan. Abestera etortzeaz gain, gurasooi gonbita luzatu nahi dizuegu musika tresnaren bat jotzera etor zaitezten (txistua, akordeoia, flauta...). Entsegua, martitzenean bertan izango da, goizeko 10:00etan, ikastolako musika gelan.
- BUKAERA:** 13:30ean gutxi gorabehera plazan. Ondoren, Gurasoen Kontseiluko kideen eskutik, **SALDA** izango da nahi duzuen guztiontzat.
- IBILBIDEA:** Ikastola – Bidebarrieta - Errementari plaza – Motxon kalea – Atzeko kalea – Kale Barria – Kale Zaharra – Plaza
(Eguraldi txarra egingo balu, ibilbidea aldatu egingo genuke).

Zatozte baserritar jantzita!!

IKASTOLAKO PRODUKTUEN SALMENTA: 13:00etaik 14:00etara Ikastolako produktuak plaza salgai izango ditugu.

